



Minbiziaren aurkako bide bat: programatutako nekrosia

Bihotzeko zenbait gaixotasunetan parte hartzen du zelulen programatutako nekrosiak eta minbizian aditu diren zientzilariak erakarri egin ditu fenomeno horrek. Zelulak programatuta hilda, tumoreetako zelulek minbiziaren kontrako tratamenduetan duten erresistentzia jaitsiarazi nahi dute. Ho-

Arxibokoa



Nekrosi bidean diren zelula epitelialak.

rretarako nekrosia bultzatzen da TNF alfa zitokinaren bidez (tumoreen nekrosia eragiten du) edo tumoreko zeluletan programatutako heriotza oztopotzen duen NF-kB faktorea inhibituz.

Akainen erasoa

Duela gutxi oso bakana bazen ere, azkenaldian Europan gero eta ugariago dira akainek trans-

Arxibokoa




mitituriko entzefalitisa-ren kasuak. TBE (*Tick Borne Encephalitis*) birusak kalteak batez ere Erdialdeko Europan eta herrialde baltikoetan eragiten ditu, baina orain Suitzara, Alemaniako hegoaldera eta Frantziako Lorena alde- ra ere zabaldu da. Txertatuta ez dagoenarentzat, beraz, arriskutsua izan daiteke lurralde horietako basoetan ibiltzea.

Asian suizidio-kopuru handiena

Osasunerako Mundu Erakundeak eta Estatu Batuetako Harvard-eko Unibertsitateak egindako ikerlan baten arabera, Txinan eta Asiako beste estatu batzuetan (Sri Lanka, Taiwan eta abarretan) beren buruaz beste egindakoen kopurua mendebaldeko herrietan baino hiru aldiz handiagoa da. Ehun mila hildakotik 30 dira suizidatuak. Txinan gainera, munduan beste inon ez bezala gizonezko baino

Europan gero eta ugariago dira akainek transmitituriko entzefalitisa-ren kasuak.



emakume gehiagok egiten du bere buruaz beste eta nekazaritza-giroan hirietan baino hiru aldiz handiagoa da suizidio-tasa. Orain arte erabilitako teoriekin (buruko gaixotasunak, hiritartzearen ondorioak, etab.) zaila da joera eta datu horiek argitzea. Ekialdeko egoera azaltzeko, beraz, beste arrazoi batzuk egon daitezke oinarrian: Txinan norbere buruaz beste egitea onartua dagoen tradizioa izatea, emakumeei gizarteak eragiten dien presioa, etab.

Lentila berri miragarriak

Gero eta jende gehiagok erabiltzen ditu lentilak, nahiz eta askotan oso erosoak ez izan. Australia, EEBB eta Suitzako ikertzaileek, polimeroak konbinatuz lentila berri batzuk egitea lortu dute. Erosoagoak omen dira eta, gainera, gau eta egun erabil daitezke hilabete osoan.

Kontsumitzaileak bi lentila-moten artean aukera dezake gaur egun: hydrogel bigunak eta gas iragazkorreko gogor- rarak. Bigunak erosoagoak dira, baina ezin dira luzaroan jarri, korneara oxigeno gutxi iristen baita. Gogorrak, berriz, luzaragoan erabil daitezke, baina erabiltzaile batzuen ustez ez dira batere erosoak.

Batzuen eta besteen defizitak konpondu nahian, Australia, EEBB eta Suitzako ikertzaileek esperimentu ugari egin dituzte bost urte- tan. Azkenik, 80 formulazio baino gehiagorekin saiatu ondoren, lentila miragarriak egitea lortu dute. Lentila hauek ohizko lentila biguinek baino sei aldiz oxigeno gehiago iragazten dute. Horrez gain, kendu gabe denbora asko erabil daitezke.



Lentila berri miragarriek ohizko lentila biguinek baino sei aldiz oxigeno gehiago iragazteaz gain, kendu gabe denbora asko erabil daitezke.

Arxibokoa

